# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2008IPLE0003
**Eguna:** 2008/02/28
**Ordua:** 13:00 – 14:30
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | EA |
| - Juan Joxe Uranga Mendiburu | EA |
| - Imanol Lizarralde Marín | EA |
| - Eloy Bazan Bazan | EA |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ/PNV |
| - Mª Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV |
| - Jesús Fontal García | EAJ/PNV |
| - Carlos de la Peña Hornés | EB-B |
| - Jose Angel Sanchez Gallardo | PSE-EE |
| - Jose Manuel Herzog de Bustos | PP |

**Bertaratu ez direnak**

| | |
|---|---|
| - David Franco Chavale | EB-B |

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2007/12/21, 2008/01/29 eta 2008/02/12ko akten onarpena.** | | Aprobación de actas de 21/12/2007, 29/01/2008 y 13/02/2008. |
| **Egindako Dekretuen berri ematea.** | | Dación de cuenta de Decretos emitidos. |
| **Astigarragako hirigintza plangintzako aholku batzordearen araudiari behin betiko onarpena ematea.** | | Aprobación definitiva del Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del Ayuntamiento de Astigarraga. |
| **PSE-EE talde politikoaren Menpekotasun Legeari buruzko mozioa.** | | Moción del Grupo socialista relativa a la Ley de Dependencia. |
| **EA talde politikoaren Menpekotasun Legeari buruzko mozioa.** | | Moción de EA relativa a la Ley de Dependencia. |
| **EA eta EAJ-PNV talde politikoen torturaren aurkako mozioa.** | | Moción de EA y PNV contra la tortura. |
| **EA eta EAJ-PNV talde politikoen 18/98 prozesuari buruzko mozioa.** | | Moción de EA y PNV acerca del proceso 18/98. |
| **EA eta EAJ-PNV talde politikoen erakunde politikoen ilegalizazioari buruzko mozioa.** | | Moción de EA y PNV sobre el proceso de ilegalización de organizaciones políticas. |
| **EAE-ANV taldearen indar politikoaren suspentsioari buruzko mozioa.** | | Moción de EAE-ANV contra la suspensión de organizaciones políticas. |
| **Informazio, galdera eta erreguak.** | | Información, ruegos y preguntas. |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1.- 2007/12/21, 2008/01/29 eta 2008/02/12ko akten onarpena.**

Aurrekontu orokor kontsolidatuaren kopuruari buruzko transkripzio-akatsa zuzendu ondoren, aurrekontua 7.828.494,15 eurokoa izango da eta aho batez onartu da abenduaren 21eko akta, baita aurtengo urtarrilaren 29koa eta otsailaren 13koa ere.

**1.- Aprobación de actas de 21/12/2007, 29/01/2008 y 13/02/2008**

Subsanado el error de transcripción relativo a la cifra del presupuesto general consolidado que queda en 7.828.494,15 euros se aprueban, por unanimidad, el acta de 21 de diciembre, así como las actas de 29 de enero y 13 de febrero del presente año.

**2.- Egindako Dekretuen berri ematea**

Idazkariak Alkateak emaniko ebazpenen (1099/07 zk.tik 1168/07 zk.ra, biak barne eta 2/08 zk.tik 187/08 zk.ra, biak barne),

Hirigintzako Zinegotzi Delegatuak (1086/07 zk.tik 1171/07 zk.ra, biak barne eta 7/08 zk.tik 192/08 zk.ra, biak barne),

Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Zinegotzi Delegatuak (1128/07 zk. eta 13/08 zk.tik 183/08 zk.ra, biak barne)

Etxebizitza, Ingurumena eta Garraioko Zinegotzi Delegatuak (1002 zk.) emanikoen berri eman du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2.- Dación y cuenta de Decretos emitidos.**

Se da cuenta de los Decretos de Alcaldía (nºs 1099/07 al 1168/07, ambos inclusive, y del nº 2/08 al 187/08, ambos inclusive)

Se da cuenta de los decretos del Concejal Delegado de Urbanismo (nº 1086/07 al 1171/07, ambos inclusive y del 7/08 al 192/08, ambos inclusive).

Se da cuenta de los decretos de la Concejala Delegada de Educación, Euskera y Juventud (nº 1128/07 y del 13/08 al 183/08, ambos inclusive).

Se da cuenta del decreto del Concejal Delegado de Vivienda, Medio Ambiente y Transporte (nº 194/08).

El Pleno queda enterado.

**3.- Astigarragako hirigintza plangintzako aholku batzordearen araudiari behin betiko onarpena ematea.**

Alkateak Obra eta zerbitzuetako informazio-batzordearen 2007ko azaroaren 12ko irizpena aurkeztu du.

Eztabaidatu ondoren, udalbatzako kideek aho batez onetsi dute irizpena, eta honako

**3.- Aprobación definitiva del Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del Ayuntamiento de Astigarraga.**

Al alcalde presenta el dictamen de la comisión informativa de Obras y Servicios de fecha 12 de noviembre de 2007.

Tras un debate los miembros de la Corporación, por unanimidad, proceden a

erabaki hau hartu dute:

la aprobación del dictamen adoptando el siguiente acuerdo:

- Behin betiko onartzea Astigarragako Udalaren Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordearen Udal Araudia.

- Aprobar definitivamente el Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del Ayuntamiento de Astigarraga .

Carlos de la Peña zinegotziak adierazi du pozik dagoela egindako onarpenarekin, zeren biztanleriaren arabera, Araudi hori onartzeko obligaziorik izan gabe, Udal honek onartu egin baitu.

Manifiesta el concejal Carlos de la Peña la satisfacción por la aprobación realizada dado que aun no teniendo obligación, por población, de aprobarse este Reglamento este Ayuntamiento lo ha aprobado.

**4.- PSE-EE talde politikoaren Menpekotasun Legeari buruzko mozioa.**

**4.- Moción del Grupo socialista relativa a la Ley de Dependencia.**

Astigarragako Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa bozkatu da. Adierazitako mozioa inoren laguntza behar dutenen autonomia pertsonala sustatzeko eta haiei laguntzeko sisteman udalerriek lankidetzan jarduteko da; horretaz gain, honako erabaki hauek hartzea proposatu du:

Se somete a votación la moción del Grupo Municipal Socialista de Astigarraga, para la cooperación de los municipios en el sistema para la promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoari eskatzea, erantzukizuneko eta nahitaezko leialtasun instituzionaleko esparruan, Astigarragako Udalarekin akordio bat susta dezala. Akordio horrek eskumenak deszentralizatzen lagunduko du eta eskumenekin batera behar bezalako finantziazioa emango da; era horretan kalitatezko prestazio-laguntzak bermatuko dira guztiontzat eskuragarria izango den arrazoizko kostuarekin.

1º.- Instar a la Comunidad del País Vasco, en el marco de la corresponsabilidad y de la necesaria lealtad institucional, a promover el desarrollo de un acuerdo con el Ayuntamiento de Astigarraga que favorezca la descentralización de competencias, acompañadas de la adecuada financiación, de forma que garantice unas prestaciones sociales de calidad a un coste razonable y asequible para todos.

2.- Jardunak sustatzea eta “inoren laguntza behar dutenen autonomia pertsonala sustatzeko eta haiei laguntzeko udal-planaren" garapena bultzatzea; horretarako, nahitaezkoa da Astigarragako Udalak behar diren baliabideetarako zuzkidura onartzea Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak plana egiaz gauzatzeko.

2º.- Promover actuaciones e impulsar el desarrollo de un “Plan municipal par ala promoción del a autonomía personal y de atención a las personas en situación de dependencia”, para lo que es imprescindible que el Ayuntamiento de Astigarraga asuma la necesaria dotación de recursos para su desarrollo efectivo por parte de la Administración Central y de la Comunidad del País Vasco.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoari eskatzea inoren laguntza behar dutenen autonomia pertsonala sustatzeko eta haiei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Aholku Batzordea era dezala, autonomietako eta tokiko administrazioek, gizarte-eragileek (sindikatuak eta enpresa-erakundeak) eta inoren laguntza behar dutenak (adinekoak eta ezinduak) eta horien familiak ordezkatzen dituzten elkarteek parte hartzeko organo gisa.

3º.- Instar a la Comunidad del País Vasco a constituir el Comité Consultivo de la Comunidad del País Vasco para la promoción de la autonomía personal y atención a la dependencia, como órgano de participación de las administraciones autonómica y local, de los agentes sociales (sindicatos y organizaciones empresariales) y de las asociaciones representativas de las personas dependientes (personas mayores y personas con discapacidad) y sus familias.

Bozketa egin ondoren, honako emaitza hau lortu da:
.- Aldeko botoak: 3 (EB-B,PSE-EE,PP)
.- Kontrako botoak: 7 (4 EA,3 EAJ/PNV)

Sometida a votación se produce el siguiente resultado:
.- A favor:3 (EB-B,PSE-EE,PP)
.- En contra: 7(4 EA,3EAJ/PNV,)

**Ez da onartu mozioa**

**La moción queda rechazada**

EB-Bko zinegotziak adierazi du aldeko botoa eman duela udal-autonomia sustatzearekin ados dagoelako.

El concejal de EB-B señala que ha votado a favor dado que está de acuerdo con la promoción de la autonomía municipal.

EAko zinegotzi Imanol Lizarraldek esan du aurkeztutako mozioa Udalerrien Espainiako Federaziotik datorrela eta ez dela hori eztabaidatzen hasiko, eta bere ustez, eskumen horrek ez duela Estatuarena izan behar, Eusko Jaurlaritzarena baizik.

El concejal de EA Imanol Lizarralde que la moción presentada viene de Federación Española de Municipios y no entran en esas discusiones, y entiende que esa competencia debe ser no del Estado sino del Gobierno Vasco.

**5.- EA talde politikoaren Menpekotasun Legeari buruzko mozioa.**

**5.- Moción de EA relativa a la Ley de Dependencia.**

EA-ko zinegotzia den Imanol Lizarraldek Menpekotasun Legeari buruzko mozioa aurkeztu du, eta ondoko akordioak onartzea proposatu du:

El concejal de EA Imanol Lizarralde presenta la moción relativa a la Ley de Dependencia proponiendo los siguientes acuerdos:

1.- Astigarragako udalak euskal erakundeei eskatzen die Pertsonen Autonomia eta Mendekotasuna duten Pertsonen Arreta Sustatzeko legeak eskatutako izapideak arintzeko pertsona horiek lege horretan aitortutako eskubideak ahalik eta lasterren erabili ahal izateko.

1.- El Ayuntamiento de Astigarraga insta a las instituciones vascas a aumentar la celeridad en los trámites requeridos en la Ley de Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, a fin de que dichas personas puedan beneficiarse, cuanto antes, de los derechos que se les reconocen en la misma.

2.- Astigarragako udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote jarrai dezala koordinatzen foru aldundiek mendekotasun Egoeran direnentzako Autonomia Legearen garapenaren inguruko oien jarduna, hiru lurralde historikoetan araudi bera aldi berean aplika dadin.

2.- El Ayuntamiento de Astigarraga insta al Gobierno Vasco a seguir coordinando la acción de las Diputaciones Forales y Ayuntamientos en materia de desarrollo de la Ley de Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, para que la normativa que se aplique en los tres territorios históricos sea la misma y coincidente en el tiempo.

3.- Astigarragako udalak euskal erakundeei eskatzen die Mendekotasun Egoeran direnen Autonomiarako Legearen edukia zabaltzeko, baita horrek ukitzen dituen norbanakoek beren eskubideak baliatu ahal izateko erabili behar dituzten prozeduren gaineko informazioa ere.

3. El Ayuntamiento de Astigarraga insta a las instituciones vascas a difundir el contenido de la Ley para la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, así como la información sobre los procedimientos que deben llevar a cabo las personas afectadas para el ejercicio de sus derechos.

4.- Astigarragako udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2008 urtearen lehen lauhilekoan igorri dezala Euskal Legebiltzarra gizarte zerbitzuen legea, ezinbestekoa baita, laguntzak edo zerbitzuak behar dituztenen baliabideak administratu eta kudeatuko dituen sare sendoa egongo bada.

4.- El Ayuntamiento de Astigarraga insta al Gobierno Vasco a que remita al Parlamento Vasco durante el primer cuatrimestre del año 2008 la Ley de Servicios Sociales, absolutamente necesaria para la existencia de una red consolidada que administre y gestione los recursos para las personas que necesitan prestaciones o servicios.

Botazioa egin ondoren, mozioa onartu da, aldeko 9 botoekin (EA 4, EAJ-PNV 3 eta EB-B 2) eta aurkako bi botoekin (PP 1 eta PSE-EE 1).

**Onartu da mozioa.**

Sometida a votación se produce el siguiente resultado:

.-A favor : 9(4 EA,3EAJ/PNV, 1EB-B, 1PP)

.- En contra :1 PSE-EE

**La moción queda aprobada**

Carlos de la Peña jaunak adierazi du akordio hori garrantzizkoa dela eta abian jarri behar dela.

Manifiesta Carlos de la Peña que este acuerdo es importante y hay que ponerlo en marcha.

**6.- EA eta EAJ-PNV talde politikoen torturaren aurkako mozioa.**

EAko idazkari Imanol Lizarraldek torturari buruzko mozioa —EAk eta EAJ/PNVk sinatua— aurkeztu du. Mozio horretan honako akordio hauek hartzea proposatzen

**6.- Moción de EA y PNV contra la tortura**

El concejal de EA Imanol Lizarralde presenta la moción relativa a la tortura, suscrita por EA, y EAJ/PNV, en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

da:

1.- Estatuko Gobernuari eskatzea terrorismoaren aurkako legea indargabe dezala eta atxilotuen inkomunikazioa desagerrarazi dezala.

1.- Instar al Gobierno del Estado a la derogación de la ley antiterrorista y a la desaparición de la incomunicación de los detenidos.

2.- Estatuko segurtasun-indarrek atxilotutako pertsonek duela gutxi egindako azken tortura-lekukotzen aurrean, Astigarragako Udalak bere larritasuna eta kezka adierazten ditu eta eskatzen du berehalako ikerketa eraginkorra gauza dadila gertakariak azaltzeko eta, hala badagokio, erantzukizunak argitzeko.

2.- Ante los últimos y recientes testimonios de tortura realizados por personas detendas por las fuerzas de seguridad del estado, el Ayuntamiento de Astigarraga manifiesta su alarma y preocupación e insta a que se lleve a cabo una investigación pronta y eficaz para aclarar los hechos y, en su caso, depurar responsabilidades.

3.- Audientzia Nazionalari eskatzea atxilotuei tortura eta inkomunikazioa aplikatu zaizkien prozedura judizial guztiak eten eta artxiba ditzala.

3.- Pedir a la Audiencia Nacional la suspensión y archivo de todos los procedimientos judiciales donde se haya aplicado tortura e incomunicación a los detenidos.

4.- Espainiako gobernuari eskatzea nazioarteko erakundeek orain arte hartu dituzten erabakiak praktikan jar ditzala, bereziki Tortura prebenitzeko eta aurreikuspen-bideak ezartzeko NBEko edesle bereziak emandako gomendioak, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo sailak jada aplikatzen dituen bezala.

4.- Instar al gobierno español a que traslade a la práctica los pronunciamientos que los distintos organismos internacionales han efectuado hasta la fecha, en especial las recomendaciones del relator especial de la ONU para la prevención de la Tortura y la implementación de los mecanismos de previsión, de manera similar a las que ya aplica el departamento de Interior del Gobierno Vasco.

Auzoko batek hartu du hitza eta adierazi du gaurko Udalbatzako 7. eta 8. puntuetan bilduta dauden bi mozioak lantzeko ezohiko udalbatza bat eskatu zutela lehenago ere. Adierazi du mozio horiek orain sartu direla; beraz, ongi etorriak izan daitezela.

Interviene un vecino señalando que habían solicitado un pleno extraordinario para tratar las 2 mociones recogidas en el Pleno de hoy en los puntos 7º y 8º. Señala que se meten ahora, sean bienvenidas .

EAko zinegotzi Imanol Lizarraldek hartu du hitza eta esan du tortura ez dela Espainiako Estatuko kasu puntual bat, baizik eta egiturazko gai bat dela eta nazioarteko erakundeen txostenek hori adierazten dutela. Jarrera horiek frankismoaren ondorioa dira eta horrek bukatu egin behar du, zeren demokraziari egiten zaion erasoa baita.

Interviene el concejal de EA Imanol Lizarralde quien señala que la tortura no es un caso puntual en el Estado Español si no que es una cuestión estructural y hay informes de instituciones internacionales que así lo señalan. Estas actitudes son un lastre del franquismo y esto se tiene que acabar dado que es un ataque a la democracia.

Bozketa egin ondoren, honako emaitza hau lortu da:

- Aldeko botoak: 8 (4 EA,3 EAJ/PNV, 1 EB-B)
.- Aurkako botoak :1 PSE-EE
.- Abstentzioa: 1 PP

**Onartu da mozioa**

Auzoko batek hartu du hitza eta esan du ez duela ulertzen zergatik onartzen den mozio hori, zeren, gero, Gasteiza joaten direnean torturak salatzera Gasteizko hiruko gobernuak Ertzaintza bidaltzen baitu manifestariak astintzera.

Imanol Lizarralde zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du lotsagarria iruditzen zaiola jendeak hori esatea, are gehiago kontuan hartzen badugu atentatuak gertatzen direnean ez dutela inolako salaketarik egiten.

PPko zinegotziak adierazi du torturak nazka ematen diola.

Auzoko batek hartu du hitza eta adierazi du mozio alternatibo bat ekarri duela eztabaidatzeko.
Alkateak esan du mozio hori ez dela Udalean jaso eta ez dela Udalbatza honetan eztabaidatuko.

Sometida a votación se produce el siguiente resultado:

.-A favor : 8(4 EA,3EAJ/PNV, 1EB-B, )
.- En contra :1 PSE-EE
.- Abstención: 1 PP

**La moción queda aprobada**

Interviene un vecino indicando que no entiende que se apruebe esta moción y luego cuando se va a Vitoria a denunciar torturas el tripartito de Vitoria mande a la Ertzanta para machacar a los manifestantes.

Interviene el concejal Imanol Lizarralde quien señala que le parece vergonzoso que digan eso cuando ante atentados no manifestáis ningún tipo de denuncias.

El concejal del PP señala que la tortura le repugna.

Interviene un vecino quien señala que han traído una moción alternativa para que se debata.
Señala el Alcalde que esa moción no se ha recibido en el Ayuntamiento y que no se debate en este Pleno.

**7.- EA eta EAJ-PNV talde politikoen 18/98 prozesuari buruzko mozioa.**
EAJ/PNVko zinegotzi Zorione Etxezarragak 18/98 prozesuari buruzko mozioa —EAk eta EAJ/PNVk sinatua— aurkeztu du. Mozio horretan honako erabaki hauek hartzea proposatzen da:

1.- Indar biziz salatzen dugu epaiketa horren izaera politikoa. Adierazi nahi dugu 18/98 prozesuaren abiapuntua politikoa dela, estatuko estrategia jakin batek baldintzatzen baitu.

**7.- Moción de EA y PNV acerca del proceso 18/98.**
La concejal de EAJ/PNV Zorione Etxezarraga presenta la moción suscrita por EA y EAJ/PNV en relación al proceso 18/98, en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Denunciamos enérgicamente el carácter político de este juicio. Deseamos señalar que el punto de partida del proceso 18/98 es político, ya que está supeditado a una determinada estrategia estatal.

2.- Sistema demokratiko batean, errugabetasun-presuntzioa eta prozesuko bermeak funtsezko eskubideak dira, eta errespetatu egin behar dira. Zuzenbidezko estatu batean, pertsonak beren ekintzengatik epaitzen dira, ekintza horiek delitu izan daitezkeen neurrian. Prozesu horretan, ordea, banda armatuko kide izateak duen esanahiaren irakurketa zabal eta interesatuaren bitartez, ekintza onargarriak legez kanpoko ekintza bihurtzen dira.

2.- En un sistema democrático, la presunción de inocencia y las garantías procesales constituyen derechos elementales, que deben ser respetados. En un estado de derecho las personas son juzgadas por sus actos, en la medida en que dichos actos sean constitutivos de delito. En este proceso, sin embargo, por medio de una lectura amplia e interesada del significado de la pertenencia a banda armada, actos admisibles pasan a ser ilegales.

3.- Pertsona guztien giza eskubideen defentsa eta herri honek bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidearekiko errespetua funtsezko bi zutabe dira bizi dugun gatazka politikoari aurre egiteko eta bakerako bidea egiteko. Errespetu horretan oinarrituta, arbuiagarriak dira, halaber, ETAren edozein krimenen ekintza bidegabeak justifikatzen dituzten jarrerak.

3.- La defensa de los derechos humanos de todas las personas y el respeto al derecho que le asiste a este pueblo para decidir su futuro constituyen dos pilares esenciales para afrontar el conflicto político existente y la vía de la pacificación. En base a dicho respeto, al igual que son rechazables las actitudes justificativas ante actos injustos de caulquier crímen de ETA.

4.- Ildo horretatik, gure babesa eskaini nahi diegu prozesatuei eta horien ahaideei, baita prozesatutako enpresa eta elkarteei ere.

4.- En este sentido, deseamos ofrecer nuestro apoyo a los procesados y sus familiares, así como a las empresas y asociaciones procesadas.

Bozketa egin ondoren, honako emaitza hau lortu da:

- Aldeko botoak: 8 (4 EA,3 EAJ/PNV, 1 EB-B)
.- Aurkako botoak :1 PSE-EE
.- Abstentzioa: 1 PP

Sometida a votación se produce el siguiente resultado:

.-A favor : 8(4 EA,3EAJ/PNV, 1EB-B, )
.- En contra :1 PSE-EE
.- Abstención: 1 PP

**Onartu da mozioa**

**La moción queda aprobada**

EAko zinegotzi Imanol Lizarraldek hartu du hitza eta adierazi du legez kanpo uzteko prozesu ororen aurka daudela eta gehiengo batek ezin duela inola ere gutxiengo bat legez kanpo utzi, horregatik adierazitako prozesu judiziala prozesu politiko bihurtu izana salatu du.
Nolanahi ere, esan du ezker abertzalearen eremuan epaietan aipatzen den eratze edo egoera politiko militarra dagoela, baina horrek ez duela inola ere justifikatzen epai horiek ematea.

Interviene el concejal de EA Imanol Lizarralde quien señala que están en contra de todo proceso de ilegalización y que en ningún caso una mayoría puede ilegalizar una minoría, por lo que denuncia el proceso político en que se ha convertido el citado proceso judicial.
No obstante, señala que en el ámbito de la izquierda abertzale hay una conformación o situación político-militar que se mencionan en las sentencias pero que en ningún caso justifica la adopción de esas sentencias.

PPko zinegotziak abstentzio-botoa zergatik eman duen argitzeko adierazi du botere betearazlearen zati bat dela eta epaiak epaileek ematen dituztela; nolanahi ere, hark ere uste du aurkeztutako frogek ez dutela balio, eta horregatik, bera prozesuaren aurka dago.

Auzoko batek hartu du hitza eta salatu du gai horietako bati buruz hitz egiten denean, beti sartzen dutela ETAren gaia.

EB-Bko zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du mozioetan egin diren salaketen aurka dagoela; nolanahi ere, gai horiek ez daudela Udal honetako zinegotzien eskuetan, eta esan du, halaber, ANVk herria zikindu ordez (asko kostatzen da garbitzea) kudeaketa-proposamenak aurkeztu beharko lituzkeela.

Explica el voto de abstención el concejal del PP quien señala que es parte del poder ejecutivo y que las sentencias las dan jueces, si bien él tiene la opinión de que las pruebas presentadas no tienen validez por lo que está personalmente en contra de este proceso.

Interviene un vecino quien denuncia que siempre que se habla de un tema de estos el tema de ETA lo meten siempre.

Interviene el concejal de EB-B quien señala que está en contra de estas denuncias formuladas en las mociones, si bien son temas que no dependen de los concejales de este Ayuntamiento, e indica que lo que debe hacer ANV es presentar propuestas de gestión y no ensuciar el pueblo que cuesta mucho limpiarlo.

**8.- EA eta EAJ-PNV talde politikoen erakunde politikoen ilegalizazioari buruzko mozioa.**

EAko zinegotzi Imanol Lizarraldek erakunde politikoak legez kanpo uzteko prozesuari buruzko mozioa aurkeztu du eta honako erabaki hauek hartzea proposatu du:

1.- Gaur egun, funtsezko eskubideak etengabe urratzen ari dira, eta horrek ez du laguntzen gure Herriak eskatzen eta behar duen konponbidea bilatzen. Alde batetik, funtsezko eskubideen urraketa arbuiatzea oinarri duen konponbidea, eta beste alde batetik, gure Herriak bizi duen gatazka politikoa behin betiko konponduko duen akordio politikoa bilatzea oinarri duena. Adierazitako akordioa gure Herriak bere etorkizun politikoa erabakitzen lagunduko dion eskubide demokratikoarekiko errespetuan oinarrituta dago.

2.- Erakunde politikoak legez kanpo uzteko prozesuek zuzenean eta era murriztailean eragiten diete hain garrantzitsuak diren eskubide eta askatasunei, hala nola ideologia-askatasunari, adierazpen-askatasunari, elkartzeko askatasunari edo

**8.- Moción de EA y PNV sobre el proceso de ilegalización de organizaciones políticas.**

El concejal de EA Imanol Lizarralde presenta la moción relativa al proceso de ilegalización de organizaciones políticas proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Las constantes vulneraciones de derechos fundamentales que vivimos, no contribuyen a la búsqueda de la solución que nuestro Pueblo reclama y necesita. Una solución basada por un parte, en el rechazo a toda vulneración de derechos fundamentales y por otra en la búsqueda de un acuerdo político que resuelva definitivamente el conflicto político que vive nuestro Pueblo basado en el respeto al derecho democrático que a éste le asiste a decidir su futuro político.

2.- Los procesos de ilegalización de organizaciones políticas afectan directa y restrictivamente al derechos y libertades tan relevantes como la libertad ideológica, de expresión, de asociación o de participación ciudadana. Afectan

herritarrek parte hartzeko askatasunari. Zuzenean eragiten diote gure herriko bizikidetzari eta gure gizarteak eskatzen duen normalizazio politikoko lekutik aldentzen gaituzte.

directamente a la convivencia en nuestro pueblo y nos alejan del escenario de normalización política que demanda nuestra sociedad.

3.- Alderdien legearen aurka gaude eta hura indargabetzea eskatzen dugu; izan eren, indar eta adierazpen politiko guztiek eskubidea dute Euskal Herriko erakunde guztietako politika- eta gizarte-arloko bizitzan parte hartzeko baldintza berdinetan, herritarren borondateak ematen dien ordezkaritzaren arabera. Eta, hortaz, azken udal-hauteskundeek talde politiko bakoitzari eman dioten ordezkaritzarekiko errespetu demokratikoa oinarri hartuta lan egiteko konpromisoa berresten dugu, baina horrek ez du ekarriko legez kanpoko jardunak gauzatzea.

3.- Estamos en contra de la ley de partidos y solicitamos su derogación ya que todas las fuerzas y expresiones políticas tienen derecho a participar en igualdad de condiciones en la vida política y social de todas las instituciones de Euskal Herria, de acuerdo con la representación otorgada por la voluntad de la ciudadanía. Y por lo tanto ratificamos nuestro compromiso de trabajar desde el respeto democrático a la representatividad que las últimas elecciones municipales han otorgado a cada grupo político, sin que esto conlleve actuaciones fuera de la ley.

4.- Pertsona guztien giza eskubideen defentsa erreala eta konprometitua eta Herri honek bere etorkizuna modu askean eta demokratikoki erabakitzeko duen eskubidearekiko errespetua dira herrialde honetan bizi dugun gatazka politikoaren eta bakegintzaren konponbidea lortzeko landu behar ditugun zutabeak.

4.- La defensa real y comprometida de los derechos humanos de todas las personas y el respeto al derecho que a este Pueblo le asiste para decidir libre y democráticamente su futuro constituyen los pilares desde los que debemos abordar la solución al conflicto político y de pacificación que vivimos en este país.

Bozketa egin ondoren, honako emaitza hau lortu da:

Sometida a votación se produce el siguiente resultado:

- Aldeko botoak: 8 (4 EA, 3 EAJ/PNV, 1 EB-B)
.- Aurkako botoak :1 PSE-EE
.- Abstentzioa: 1 PP

.-A favor : 8(4 EA,3EAJ/PNV, 1EB-B, )
.- En contra :1 PSE-EE
.- Abstención: 1 PP

**Onartu da mozioa**

**La moción queda aprobada**

Imanol Lizarralde zinegotziak hartu du hitza eta esan du demokrazia-printzipioa oinarri hartuta, astakeria dela alderdi politikoa legez kanpo uztea eta gaiaren inguruko errekurtsoa jarrita dagoela, eta ikusiko dugula zer erabakitzen duten Europako epaitegiek. Sektore hori isilaraztea nahi bazuten, ez dute lortu eta gogorarazi du Irlandan bizi izandako egoera askoz larriagoetan ez dela horrelako

Interviene el concejal Imanol Lizarralde quien señala que desde el principio democrático es una barbaridad la ilegalización y el tema está recurrido y ya veremos lo que decidirán las instancias europeas. Si lo que pretendían era silenciar a ese sector no lo han conseguido, y recuerda que en situaciones mucho más graves vividas en Irlanda tal aberración no se ha producido. Con la

zentzugabekeriarik izan. Alderdia legez kanpo uzteak eragiten du eraginpeko aldeak biktimismoa erabiltzea.

ilegalización lo que se produce es que la parte afectada utilice el victimismo.

Zorionek hitza hartu du eta esan du gure eguneroko bizitzan Alderdien Legearekin sortu den egoera surrealista pairatzen dugula eta ondorioak oso negatiboak direla; horretaz gain, gustatuko litzaioke hemen aukera-berdintasuna izatea, zeren haien ordezkaritza oso handia baita.

Zorione interviene señalando que padecemos en nuestra convivencia diaria la situación surrealista que se ha producido con la Ley de Partidos y sus consecuencias son muy negativas, y me gustaría que estuvieran aquí en igualdad de condiciones, dado que su representación es muy fuerte.

Auzoko batek hartu du hitza eta adierazi du ekintzetara igarotzeko garaia dela. Bilera asko egin dira; lehendabizikoak oso positiboak ziren, eta hilabete batzuk igaro ondoren, egoera askoz okerragoa da. Gogorarazi du badagoela legezko irteera bat ANVk bere ordezkaritza izateko, horretarako, alderdi horren aldarrikapenak eta eskubideak zerrendatu behar dira. Amaitzeko, adierazi du Astigarragan Alderdien Legea aplikatu dela Udalerrian agintzen dutenei interesatzen zaielako.

Interviene un vecino indicando que es hora de pasar a los hechos. Se han mantenido muchas reuniones las primeras eran más positivas y después de varios meses la posición es mucho peor; recuerda que hay salida legal para que ANV tenga su representación numerando las reivindicaciones y derechos que les asisten. Finaliza señalando que se aplica la Ley de Partidos en Astigarraga por que les interesa a los que gobiernan el Municipio.

EAko zinegotzi Imanol Lizarraldek hartu du hitza eta honako hau gogorarazi du:

Interviene el concejal de EA Imanol Lizarralde quien recuerda:

1.- Astigarragako gehiengoa gobernu-taldeko udal-taldeek osatzen dute, eta talde horiek ANVk baino boto gehiago dituzte guztira; hortaz, ANV Astigarragaren ordezkaritza bat da, baina zati batena bakarrik.

1º.- Que la mayoría de Astigarraga la conforman los grupos municipales del equipo de gobierno, que totalizan más votos que ANV., de modo que ANV es una representación de Astigarraga pero de una parte.

2.- Hartzen dituzten konpromisoak betetzen dituzte.

2º.-Que cumplen lo que se comprometen.

3.- Ezin dute udal-ordezkaritza utzi ANVri emateko.

3º.- Que no pueden dejar la representación municipal para pasarla a ANV.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta esan du jende guztiak dituela kontraesanak, baina zuek ere badituzue, zeren ETAtik aldendu izan bazinete, arazo hau konpontzeko aukera egongo zen. Guri eskatzen zaigu Alderdien Legea ez aplikatzeko, baina zuek ez zineten ETAtik aldendu.

Interviene la concejal Zorione quien señala que todo el mundo tiene contradicciones, pero vosotros también las tenéis dado que si os desvinculaseis de ETA cabría la solución a este problema. Se nos pide a nosotros que no apliquemos la Ley de Partidos, pero vosotros no os desvinculáis de ETA.

EB-Bko zinegotziak hartu du hitza eta

Interviene el concejal de EB-B quien

gogorarazi du hauteskundeetan lortutako emaitza aplikatu izan balitz, Udala honela eratuko zela: egungo taldeek 6 zinegotzi izango zituzten eta ANVk 5; hortaz, gehiengoa egungo udal-alderdiek daukate. Horretaz gain, esan du ANVk ez duela herri honekiko interesik, eta beste leku batera joan daitezela borroka egitera. Amaitzeko, adierazi du ados dagoela mozioak eztabaidarekin, baina ez Udalbatzetan.

recuerda que de la aplicación del resultado electoral la constitución del Ayuntamiento correspondería 6 concejales a los grupos actuales y 5 a ANV, de modo que la mayoría la tienen los actuales grupos municipales, y señala que ANV no tiene interés por este pueblo, y que se vayan a luchar a otro sitio. Finaliza en que está de acuerdo a debatir mociones pero no en los Plenos.

**9.- EAE-ANV taldearen indar politikoaren suspentsioari buruzko mozioa.**

Mozioa aurkeztu dute eta honako erabaki hauek hartzea proposatu dute:

1.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsi bakoitzak dituen eskubide guztiak bermatuak izango dira.

2.- EAE-ANV Udal Taldeari bere izena eta izaera errespetatuko zaio.

3.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek udal jardueran era normalizatu batetan parte hartzeko aukera guztiak izango dutela bermatuko da, beste Udal Talde eta hautetsiek izango dituzten berdinak, hain zuzen ere.

4.- EAE-ANV Udal Taldeko hautetsiek udalaren ordezkari gisa bestelako erakundeetan dituzten ardurak eta karguak gorde eta era normalizatu batetan bete ahal izango dituztela bermatuko da.

5.- EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek berain lana garatzeko dituzten udal tresna eta baliabide zein diru ekarpen guztiak bermatuko zaizkie.

6.- Erabaki honen ondorioz EAE-ANV Udal Taldeak edo hautetsiek jaso dezaketen eskubide urraketa edota ondorioen aurrean Udalak bere babes eta laguntza osoa eskainiko du.

**9.- Moción de EAE-ANV contra la suspensión de organizaciones políticas.**

Se presenta la moción proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.-El grupo municipal EAE-ANV así como cada concejal elegido tendrán garantizados todos sus derechos.

2.- Al grupo municipal EAE-ANV se le respetará tanto su nombre como su forma jurídica.

3.- Se garantizará que el grupo municipal EAE-ANV y los concelajes elegidos puedan participar en la actividad del Ayuntamiento de forma normalizada, al igual que los concelajes elegidos de otros grupos municipales.

4.- Se garantizará que las responsabilidades y cargos que tienen y ostentan los concejales elegidos del grupo municipal EAE-ANV en otros organismos los puedan cumplir de forma normalizada.

5.- Al grupo municipal EAE-ANV y a los concejales elegidos se les garantizarán tanto las herramientas y medios municipales como las aportaciones financieras que necesiten para ejecutar su labor.

6.- Teniendo en cuenta, por un lado, que debido a este acuerdo se pueden vulnerar los derechos del grupo municipal EAE-ANV y de sus concejales electos y por otro lado, las consecuencias que se originan de esa

situación, el Ayuntamiento ofrecerá toda su protección y ayuda.

Bozketa egin ondoren, honako emaitza hau lortu da:

- Aldeko botoak: bat ere ez
.- Kontrako botoak: 9(4 EA,3 EAJ/PNV, 1 PSE-EE,1 PP )
.- Abstentzioa: 1 EB-BB

Sometida a votación se produce el siguiente resultado:

.- A favor : ningún voto
.- En contra: 9(4 EA,3EAJ/PNV,1 PSE-EE,1PP )
.- Abstención: 1 EB-BB

**Ez da onartu mozioa**

**La moción queda rechazada**

Carlos de la Peñak esan du abstenitu egin dela erakundeak ez duelako bermatu mozioa gaztelerara itzuli denik.

Carlos de la Peña señala que se ha abstenido porque la institución no ha garantizado que la moción haya sido traducida al castellano.

Imanol Lizarralde zinegotziak hartu du hitza eta esan du hilketen, esaterako Capbretonen izandakoen aurrean, ANVk ez duela ezer esaten eta haiei eragiten dieten egoeretan guk ere salatzeko eskatzen digute. Gogorarazi du hori inkoherentzia handia dela eta horregatik eman duela kontrako botoa.

Interviene el concejal Imanol Lizarralde señala que ANV ante asesinatos como el de Capbreton no dice nada y en situaciones que les afectan entonces piden que denunciemos. Recuerda que eso es una gran incoherencia y que por ello han votado en contra.

Zorionek hartu du hitza eta gogorarazi du Astigarragako zinegotzi hautetsi gisa karguak hartzeko daukagun arazoari aurre egiteko ez daukagula legezko konponbiderik.

Zorione interviene recordando que no tenemos la solución legal para el problema que nos plantean de tomar los cargos como electos de Astigarraga.

**10.- Informazio, galdera eta erreguak**

10.1 Alkateak hartu du hitza eta adierazi du obren eta zerbitzuen irizpen bat sartu dela, baina premiazkoa ez denez gero, ez dela Gai Zerrenda honetan sartuko.

10.2 ANVk deitutako greba orokorraren egunean zenbait piketek izandako jarrera faxista salatu du Alkateak.

Auzoko batek galdetu du nork ote duen Astigarragan banatu diren postalen ardura.

Carlos de la Peña zinegotziak hartu du hitza eta esan du Hitzarmen batzuk sinatu

**10.- Información, ruegos y preguntas.**

10.1 Interviene el Alcalde quien señala que se ha metido un dictamen de obras y servicios pero que dado que no es urgente no se va a incorporar en este Orden del Día.

10.2 El Alcalde denuncia la actitud fascista de algunos piquetes que actuaron el día de huelga general convocado por ANV.

Un vecino pregunta quien es el responsable de haber repartido en Astigarraga postales.

Interviene el concejal Carlos de la Peña señalando que han realizado unos

direla Udalaren eta Sagardogileen eta Ostalarien artean, eta esparru horretan egin dela kanpaina.
Auzoko batek hartu du hitza eta adierazi du postal horien % 98 gaztelaniaz dagoela, eta batzuetan Espainiako armarria ere azaltzen dela. Udalbatzako mahaira hurbildu dira eta adierazitako postalez betetako bi poltsa hustu dituzte.
Alkateak Idazkariari adierazi dio hori idazteko aktan.

Convenios entre el Ayuntamiento, Sidreros y Hosteleros y que en ese marco se ha realizado la campaña.
Interviene un vecino quien señala que esas postales van un 98% en castellano y en algunas con el escudo de España, y se aproximan a la mesa del Pleno y vacían 2 bolsas llenas de las postales precitadas.
El Alcalde señala al Secretario que esto sea recogido en el acta.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2008ko otsailaren 28an

Xabin Olaizola Lasa
Idazkari-kontuhartzailea